

## Bezeroarekin harremanak

Gure bezeroekiko **gardenak eta zuzenak** izango gara.

- Lehengaiei eta haien jatorriari buruzko informazio guztia enpresaren webgunean aurkituko da.
- Edozein zalantza eukiz gero, gure kontaktua eskura egongo da webgunean, eta 24 ordu baino gutxiagotan erantzuteko konpromisoa hartzen dugu.
- Telefonoz eta emailez komunikatzeko aukera emango dugu, horrela arazoren bat badago berehala konpondu ahal izango dugu.
  - Telefonoa azkarrago erantzun ahal izango dugu, baina gmaila erregistratuta dagoenez, ez da arazorik egongo erantzuteko.
- Bezeroak kexak eta aldaketak proposatzeko leku bat izango dute ere bai, horrela gure enpresa eta funtzionamendua hobetu ahal izango dugu.
- Ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz komunikatzeko aukera emango dugu, horrela ez da arazorik egongo eta eman nahi dugun informazioa ondo transmitituko da.